

Metafisikara, fisikaren bidetik

Sorkuntzaren hainbat sektoretan euskara ardatz duten hamabi profesional autonomo elkarrizketatu ditu Fermin Etxegoienek 'Eutsiko diogu?' liburuan • Galdera bakarra egin die: liburuaren izenburukoa

Igor Susaeta Donostia

Azkeneko urteotan, unibertitate giroetan jaiotako soziologia akademiko batek hjuuaspotutako teorizazioaren loraldi bat gertatu dela; hori pentsatzen du Fermin Etxegoien kazetari eta idazleak (Oñati, Gipuzkoa, 1966). «Eta oso interesgarria da mundu mailako teorizazioez jabetzea». *Eutsiko diogu?* (Erein) elkarrizketa liburuan, ordea, giro horretatik kanpo daudenen, «lurra zapaltzen dutenen», eguneroko laneko esperientzia «oso interesgarria eta oso errealista» bildu nahi izan du, kontrara edo. «Hortik datorren teorizazioa; metafisikara fisikatu ailegatzen delako, eta ez alderantziz». Beraz, sorkuntzaren hainbat sektoretan euskara ardatz duten hamabi profesional autonomoekin solastatu da «pare bat orduz», eta hitz-asperu horietan krisi sozioekonomikoak halabeharrez eragindako galdera zehatz bezain orokor bati erantzun dioté elkarrizketatuek; liburuaren izenburukoari, alegia.

Itaun horrek, baina, beste bat dakar ia derrigorrean, Etxegoienek atzo Donostian, liburuaren aurkezpenean, nabarmendu zenez, eta erraz lotu du abiapuntua ematen duenarekin. «Euskarazko espresio bideetara jotzen baldin badugu, ez ote gaude beste krisialdi baten barruan? Badirudi inoiz baino urrutirago heldu dela euskarazko espresio bidea, baina topo egiten duzu indize batzuekin, eta horietako batek esaten du, adibidez, hizkuntzaren erabilera beherantz doala». Botila erdi hutsik edo erdi beteta ikusten duten jakin nahi izan du, hortaz, elkarrizketatzaileak. «Euskaltzale aktibo batzuei ari gara galdetzen, era berean, ea hizkuntzak eta herriak eutsiko ote dioten». Aipatutako indize horiei erreparatuta egiten dira, Etxegoienen iritziz, interpretazio apokaliptiko batzuk, ondokoa planteatzen dutenak: «Ez ote gaude hasieraren bukaeran?». Dena den, egileak ez dauka hain apokaliptiko agertzeo intenziorik.

Erein argitaletxeak egileari egindako enkargua da *Eutsiko diogu?* liburu. Joan den otsaile-

an hasi zen liburuko protagonistak elkarrizketatzen, eta pentsatzen du neurri batean, behintzat, biluzi zaizkiola. «Irakurri duten bakanez hori aipatu didate». Dena den, zalantza batzuk izan zituen zerrenda osatzeko orduan. Hasieran buruan zeukan itsasoan egiten duen Ondarroako norbait edo nekazariren baten bizipenak jasotzea, adibidez. «Baina azkenean, normala den bezala, arlo kulturalistara jo dut». Hori bai, hurraldetasun parametroak eta parekidetasunarenak errespetatu ditu.

Jite literarioa

Iruditzen zaio Etxegoieni elkarrizketa trinkoetara jotzen dela. «Jendea ohituta dago galdera hausnartu eta trinkoetara, eta gisa bereko erantzunetara. Liburuan ez da hori gertatzen». Egilea oso modu gorabeheratsuan agertzen da. «Hitz bat esateko, nire teoria zelebreren bat botatzeko... Edo ez naiz agertzen sei orrialdetan!».

Berezitasunen bat ere badauka ia 300 orrialde dauzkan liburuak. Gehienetan elkarrizketatuak be-
raiek dira mintzatzen hasten dire-

nak; beste batzuetan elkarrizketatzailea da zerbait esaten duena; eta bakanean batean, hasieratik bete-betean heltzen diote jatorrizko galderari. «Gainera, ez ditut aurkezten, jite literario bat eman nahi izan diedalako». Esperantza dauka Etxegoienek irakurlea jabetuko dela norekin aritua den hizketan. «Eta hala ez balitz,



Euskaltzale aktibo batzuei ari gara galdetzen, era berean, ea hizkuntzak eta herriak eutsiko dioten»

«Fisiologikoki baikorrak dira denak, nahiz eta badakiten haien burua lehoien zirkura bota dutela»

Fermin Etxegoien idazlea

elkarrizketaren ondoren biografia konbentzional bat eta argazki collage bat erantsi ditugu». Solas-jatorrizko bertsioekin konparatuta, berrantolatuta aurkeztu du egileak, helburu batekin: «Ira-

kurleak senti dezala harentzat hitz egiten ari direla, ez elkarrizketatzailearentzat».

Elkarrizketa «jatorrak» direla-koan dago, baina haren irudiko, balizko trinkotasun falta horrek badauka arrisku bat: «Ea ez ote diren izango irrelebanteak». Etxegoienen ustez, ez dira «egia handiak» kontatzen, eta ez dago «sekulako errebelaziorik». Badute zerbait, ordea, «badago, egunerokotasunaren normaltasun bat».

Eta hori azaltzeko, adibide batzuk eman zituen atzo, aurkezpenean. «Jende askorentzat, Ander Lipus izan daiteke munduko bohemiorea, baina nik aukeratu dut antzerkiko enpresagizon bat delako». Diruaz-eta mintzatu dira, eta, beraz, galdetu dio, besteak beste, *Hamlet* antzezteagatik zenbat kobratzen duten, Eñaut Elorrieta-
rekin solastatutakoan haren disko bakoitzak zenbateko kostua daukan jakin nahi izan duen moduan. «Bilatu ditut tentsio pun-

tuak, *engantxada* batzuk», aitortu zuen Etxegoienek, umorez.

Hamabi solasaldi, esandakotik liburura ekarritakora apenas aldatu direnak, eta hamabi protagonista, batez ere gogo batek batzen dituenak. «Fisiologikoki baikorrak dira denak, nahiz eta badakiten lehoien zirkura bota dutela haien burua». Metafisikara fisikaren bidetik iritsi direnak.

ELKARRIZKETATUAK

Ander Lipus (antzerkigilea), Estitxu Eizagirre (*Argia*-ko zuzendaria), Luistxo Fernandez (*CodeSyntax* enpresako kidea), Mari Añes Gorostiaga (Irulegi irratiko esataria), Eñaut Elorrieta (musikaria), Miren Amuriza (bertsolaria), Hedo Etxarte (Katakarak Liburuak-eko liburu saltzailea), Maider Unda (ar-
tzailea eta borrokalaria), Iban Arantzabal (Goienako kudeatzailea), Maia Eder Kurutxet (Skunkfunk arropa etxeko diseinatzailea), Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga (zinemagileak), eta Miren Agur Meabe (idazlea).



Fermin Etxegoien atzo Donostian, liburu aurkeztu aurretik. JON URBE / ARGAZKI PRESS